

## OLGETA MAGIKOA (\*)

Doinua: Amurizaren "Deskalabrua"rena

*Joseba A. Santxo Uriarte*

*Getxo*

### I

Bertsoen giltzaz amets-ateak  
berriz zabaltzera noa  
senak hortara naroa  
berriro ere senti dezadan  
bihotz-fereka banoa  
plazeraren baltsamoa.  
Bertso-doinutan hasi orduko  
gogoaren pianoa  
paperean arranoa  
hegaz hasi da tajutu nahirik  
altxor guztien pianoa  
plano guztien asmoa

### III

Zurubi-mailak bukatu eta  
oro ikusten dut lasai  
ikustezina ere bai  
gogoa baina egon ezinik  
oraindik daukat goranahi  
izar haundi-nahien anai.  
Adimendua dudanez gero  
sentipen magikotan blai  
hain ditut zentzuak ernai  
begiak jotzen duen guztia  
bihurtzen baita kantagai  
bertso berriaren sustrai.

### II

Bertsorik bertso mailarik maila  
igotzen dut zurubia  
bi mundutako zubia  
igotzen eta argiagotzen  
ludiaren irudia  
irudiaren ludia.  
Hitz-neurturiko jolas bihurtuz  
sormenaren justuria  
nire esku urduria  
dantzan ari da papereratzten  
hitz magikoen euria  
ametsetan isuria.

### IV

Atseginaren altzoan nago  
heldzen baita niregana  
musika eder bakana  
baita lainotan hurbiltzen ere  
kantatzen ari den dama  
eta eskutik narama.  
Bere ahotik ez titan dantzut  
melodien karabana  
belarrirako lastana  
aire berritan edertzen baita  
ezein bertsoaren izana  
apainduz bertan esana.

---

(\*) *Xenpelar Saria, 1987, lehen sariduna.*

## V

Liluraturik nago aditzen  
 erritmo bizi arina  
 txalapartaren berdina  
 eta zainetan eutsi ezinez  
 daukat odol irakina  
 tun-tun setatsuen grina.  
 Osorik hautsiz osorik betez  
 bertsoaren diziplina  
 neurriaren danbolina  
 jotzen ari da silabakatuz  
 esaldi-mokil gordina  
 berba-dantza atsegina.

## VII

Malkorik malko mailarik maila  
 bajatzen dut eskailera  
 bi mundutako barrera  
 bajatzen eta ilunagotzen  
 galeraren egoera  
 egoeraren galera.  
 Hitz-neurtuetan agortuz gero  
 irudipenen kantera  
 lehengoko esku artega  
 nekez ari da ubideratzen  
 eskas datorren urbehera  
 ametsa baita sosega.


## VI

Gozamenaren azken dardarak  
 nago sentitzen hasia  
 zirrarara gozo-gazia  
 entzuten baitut usapal baten  
 hitz-xurrunurru nahasia  
 edertasun garrasia.  
 Bere kantutik hitz hoskideak  
 etengabe doaz ia  
 parrastaka fantasia  
 errima batek ereiten baitu  
 hurrengoaren hazia  
 armoniaren grazia.


## VIII

Bihotz-erdian oraindik daukat  
 kilika goxo biguna  
 plazeraren oihartzuna  
 ate ostean gelditu arren  
 bertso idatzien luma  
 magiaren erresuma.  
 Ez dut barruan nabarituko  
 bertsogintzaren lurruna  
 hain hurbila hain urruna  
 berriro ere zabaldu arte  
 ametsen ate astuna  
 neure olgeta kuttuna.


DESKALADURIA




Des - ka - la - bru bat des - ka - la - bru bi - des - ka - la




hru - en se - gi - da zen bat des - ka - la - bru di - ra gu - ro e -




tac - an bart gor - ta - tu - a des - ka - la - hru ta er - di




de des - ka - la - bru ja er - di da mahal e - ta - te sal - ta - tu



du - te tel - la - tu - lik lu - lar - gi - ra ni o - ha - pe - lik be - gu



ra jan - go ni - tu - en i - zar guz - ti - ak sor - gin lu -



tsak er - ha - li - ra sor - gin hu - tsak ez ha - li - tu